

IRA eta borroka armatua

• ROGELIO ALONSO •

[DOKTOREA NAZIOARTEKO HARREMANETAN ETA BELFASTEKO ULSTERKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA]

Jende askok galdetzen du ez ote den errazagoa izango IRAk berriz ere borroka armatuari ekitea Iparr Irlandako bake prozesuaren egungo krisiaren ondorioz. Egoera oso larria izan arren, ez du ematen hala gertatuko denik.

Mugimendu errepublikanoaren zatirik handienak onartu du alferrikakoa dela borroka armatuaren taktika. Duela gutxi arte, ordea, haren ideologiaren printzipioetako bat zen. Izan ere, esan berri dugunaren adierazgarri, hona hemen Gerry Adamsek 1980ko hamarraldian egindako adierazpen hauek: «Borroka armatua ezinbesteko erresistentzia modu bat da, eta britainiarren presentzia desagertu ondoren soilik ez da beharrezkoa izango. Sinn Feinek noizbait borroka armatua gaitzestea erabakitzen badu, ni ez naiz hartako kide izango».

1998an Belfasteko Akordioa sinatu ondoren, buruzagi nabarmen batzuek, besteak beste, Martin McGuinness eta Adamsek, bake prozesuaren aurkako disidente errepublikanoek egindako indarkeriazko ekintzak kondenatu dituzte. Hala ere, buruzagi horiek berek iraganen borroka armatua justifikatzeko adierazitako kausak oraindik indarrean egon arren egin dira aipatu gaitzespen horiek.

Irlandako errepublikanismoaren joe-

ra nagusiak jadanik ez du dogmatzat hartzen borroka armatua, taktikatzat baizik, eta, ondorioz, alde batera utzi ahal eta behar da kaltegarria izanez gero mugimenduaren idealak lortzeko. Logika hori agertu zen 1998ko abuztuan *An Phoblacht* egunkari errepublikanoan argitaratutako artikulu batean. Haren titulua adierazgarria zen oso: *Militarismoaren alferrikako bidea*.

Artikuluak Benetako IRAk Omaghen egindako atentatua kondenatu zuen.

Atentatuari 31 lagun hil ziren, bi espainiar haien artean. Artikulu honako hau irakur zitekeen Belfasteko Akordioaz: «Gure azken xedea —batasuna [Irlandarena] eta independentzia— oraindik ere oso urruti egon arren, gaur egun jardun politikoa da borroka egiteko biderik egokiena, gure helburura hurbiltzeko aukera ematen baitugu». Era berean, atentatua egin zuen talde disidenteari militarismoan *erori* izana leporatu zion, metodo militarrek beste edozeren gainetik jarri eta borrokaren funts politikoa ilunduta uzteagatik. «Hori gertatzen denean, borroka armatuaren taktika printzipio bihurtzen da, haren erabilpena dakarren helburu politikoa izan beharrean», zioen artikuluak amaieran.

Jarrera berria mugimenduaren beharren ondorioa da. Izan ere, alde militarrek oso eragin handia izan du politikoko

an, eta Sinn Fein adar armatuaren mende egon da. 1980ko hamarralditik aurrera baino ez zion utzi alderdiak «IRaren lehengusu txiki pobrea» izateari, Gerry Adamsen beraren hitzetan, baina, hala ere, IRAko zuzendaritzak mugimendu errepublikanoan aginpide handia izaten jarraitu zuen.

Harreman horren zer-nolakoak izugarri zaildu zuen errepublikanoen helburuetan aurrera egitea, su-etenaren iragarpena gertatu baino lehen Richard McAuleyk, Adamsen gertuko lankide batek, onartu bezala: «Ez gara konturatuko gure ahalmen guztiaz Iparraldean gerrak iraun bitartean, eta Sinn Fein orain arte bezala aurkezten jarraitzen duten bitartean, hau da, borroka armatuari eta indarkeriari lotuta. Ziur aski, ez ginen konturatzen errealtate horretaz 80ko urteen hasieran, hauteskunde-politikan lehen aldiz esku hartu genuenean».

Baina IRAk 1994ko su-etenaren baino lehen egindako barne dokumentu bat da borroka armatuak ezartzen zituen mugen frogarik adierazgarriena. Hartan honako hau onartzen zen: «Une honetan, errepublikanoek, bakarrik jardunez gero, ez dute indarrik beren helbururik gorera lortzeko. Beharrezkoa da borroka sendotzea, batez ere beste esparru nazionalista batzuetatik: SDLP —boto gehien lortzen duen alderdi nazionalis-

ta; John Hume da alderdiko buruzagia—, Dublingo gobernu eta Estatu Batuetako *lobby* irlandar gero eta indartsuagoa. Eta ez da ahaztu behar Europako Batasuneko beste leku batzuetan lor daitekeen laguntza, betiere sortutako indarra areagotzeko asmoz». Ondoren, zenbait gorabehera aipatu eta horiek guztiak batera gertatzeaz esaten zuten «une egokia» iritsia zela borroka armatuaren erabilpen taktikoa bultzatzeko, aurreikus zitekeen etorkizunean aukera

gutxi egongo zelako gorabehera horiek guztiak berriz batera gertatzeko.

IRAk eragindako biktima zibilek kausa errepublikanoari egiten zitoten kalteari buruz Adamsek esan bezala, politikak, orduan bezala orain ere, borroka armatuaren ekintzak gidatu eta kontrolatu egin behar ditu. Une historiko honetan, Britainiar uharteetan, Europako gainontzeko lekuetan eta Estatu

Batuetan ia guztiak bake prozesuaren alde egotea lortu da, baina tresna militarren erabilpenak kalte egingo lioke errepublikanoen estrategia aldaketari, eta areagotu egingo luke haien bazterketa, nahiz eta, hain zuzen ere, hasieratik bazterketa horren ondorio izan beren esparru politikoa perfektionatzeko hartutako erabakia.

*Erredakzioan itzulia

“
Mugimendu
errepublikanoaren
zatirik
handienak onartu du
alferrikakoa
dela
borroka armatuaren
taktika

“
Une historiko
honetan, Britainiar
uharteetan, Europako
gainontzeko lekuetan
eta Estatu Batuetan
ia guztiak bake
prozesuaren alde
egotea lortu da

Euskal Herria defendatu! Desitxuraketari ez!

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI' (*) •

[DAZLEA]

Egun hedabideek gure herrian betetzen duten paperaren inguruan hainbat hausnarketa eta proposamen helarazi nahi dizkiogu euskal gizarteari.

Hedabideek gizartean eragiteko duten gaitasuna eta botere ia erabatekoa ukaezinak dira, eta Euskal Herriak pairatzen duen gatazka politikoa dela medio, hedabideen garrantzia aipagarriagoa da, inolaz ere ez direlako eragile neutralak. Argigarria da merkatuaren gehiengoak betetzen duten hedabideek Euskal Herriaren zatiketa eta ukapenari lotuta daudela jabetzea (grupo Correo, Priesa...).

Espainiar Konstituzioa errefusatu genuen, NATOri ezezkoa eman genion. Euskal Departamendua aldarrikapen dugu, presoen Euskal Herriratzea eskatzen dugu... baina hedabide horiek, egunero, herri honen borondatearen kontra

beste herri bat marraztu nahi dute. Era berean, ezin ahanzi euskara eta euskal kulturarekiko duten jarrera lotsagabea, gure herriaren susturriak erazi nahian. Aniztasunarekin ahoa bete arren, herri honen aniztasunari muzin egin diote, sektore askoren ahotsa isilarazi dio desitxuratuz.

Baina ideiek ez ezik pertsonak ere jasan dute hedabideen bidegabekeria. Hainbat euskal herritar izan da aldez aurretik epaitua eta kondenatua. Sortutako giroak usu indar polizialen atxiloketak bideratu ditu. Komisaldegiak torturaren garraxiari entzungor egiten diote. Presoen oinazea karteletako lau hormen artean mantendu nahi izan dute.

Gezur biribilak erabiliz edota egia aldatuz, sektore jakin batzuei min ematea bilatzen duen lan *periodistikoa* egin dute. Pentsamendu bakarraren aldeko las-terketa eroan gizartean axioma maltzur

eta zitalak errotu nahi izan dituzte, euskal abertzaletasuna gaitzetsiz, kasu.

Informazioa eta adierazpen askatasuna herritar orori dagozkion eskubideak dira eta Euskal Herria eraiki nahi dugunok egungo egoera juridiko-instituzionalaren babesleei ere aitortzen dizkiegu eskubide horiek. Botere mediatikoez ezin dezakete beste horrenbeste esan abertzale edo ezkertzearen sektoreetaz.

Testuinguru honetan, kritika eta protesta egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu informazioa eta adierazpen eskubideak murrizten dituzten hedabide horien aurrean. Errealitate desitxuratzen dutenek protesta eta kritikak adierazpen askatasunaren kontrako eraso bezala agertzea ez litzateke harritzekoa; besteen ahotsa isilarazi ostean, beren burua biktimatzen aurkeztu baitute sarritan.

Herritarrek euren haserre produktibitate horiek erosi edo kontsumitzeari uko egin ez azalaraztea zilegi da eta, beraz, praktika horiek hezurramituko dituzten deialdiak erabat egokiak dira. Ildo horretatik oso proposamen zehatza helarazten diogu euskal gizarteari: otsailaren 27an *Correo*, *Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* erosteari uko egitea, desitxuraketaren aurkako eta Euskal Herriaren aldeko urrats bat egitea alegia.

* Artikulu hau honako hauek ere sinatu dute: Joxe Azurmendik, Manolo Arozenak, Jose Mari Esparzak, Jaime Iribarrenek, Fito Rodriguezek, Estitxu Arozenak, Jose Maria Lorenzo Espinosak, Karlos Sorigurenek, Fermin Villanuevak, Jesus Mari Irazuk, Juan Luis Mugerzak, Xoxe Estevezek, Paulo Iztuetak, Bittor Elizagoienek, Andoni Tolosak, Kizkitza Gil de San Vicentek, Begoña Sagarzazuk, Jon Sarasuak, Mikel Urkolak, Eva Forestek, Alfonso Sastrek eta Iban Medinak.